

# **MERKATUAREN SEGMENTAZIOA**

Gure enpresak bio-produktuak banatuko ditu bitartekari batzuei (supermerkatuak, dendak..) eta denda batean salduko ditugu. Denda honela izango da:

Dendan gure bezeroekin harremana zuzena izango da. Alokaturako dugun dena denda hau lortu dugu Cruces-en, kokaleku ona dauka hainbat jende bizi bait da gune horretan. Konkretuki, dendak 32 metro karratu ditu, eta horrek esan nahi du leku nahikoa izango dugula erakusleiko handi bat jartzeko, hortaz bezeroak erakarriko ditugu.

Aiala eta Noelia izango dira kontaktua dendetako bezeroekin mantenduko dutenak. Aialak esperientzia dauka jendearekin egoten berak kreatibitatea handia bait dauka hitzekin. Aldiz, Noeliak, ez du horrelako esperientziarik baina ikasteko gogo handia dauka eta oso azkar ikasten du.

Gure helburua ahalik eta jende gehiena gure ingurumenarekin kontzientziaztea da, beraz, gure bezeroek nagusiki helburu hori izan behar dute.

Beste motatako bezeroak izango dira ez dutenak hain beste interesik ingurumenaren inguruan. Hau da, ez zaie inporta ingurumena baina gure kanpainarekin lortuko dugu haiek erakartzea. Azkenean, bezero hauek ilustrazio desberdinak ikusten badituzte erosi nahiko izango dute, eta konturatu gabe, ingurumena pixka bat hobetuko dute, orduan gure enpresaren helburua beteko dute.

Gure bezeroak adin desberdinetakoak izango dira erositako produktuaren arabera, nahiz eta gure bio- produktuak adin guztietako bezeroei eskaintzen dizkiegu.

Gure etxeetan erabiltzen ditugun edalontziak ez dira plastikozkoa, baizik eta kristalezkoak, orduan jendeak ez ditu erosten edalontzi hauek erabiltzeko egunero, bakarrik momentu espezifikoko batzuetarako. Momentu horiek festetan dira batez ere, eta horrek esan nahi du, festetan kalean egoten den jende gehiena, gazteak direla. Orduan, edalontzien bezeroen adina 14 urtetik 30 urtera dutenak izango da. Zehazki, Barakaldoko biztanleen artean, gazteak batez ere erosi dituzten gure edalontziak.

Bestalde, poltsak, adin guztietako bezeroei eskainita daude. Dendetan, supermerkatuetan... zerbait erosten duzunean, poltsa bat ematen dute, orduan ez dago konkretuki adin bat, zeren eta diruarekin denok erosi ahal dute. Poltsa hidrosolbagarriak, adin guztietako eta sexu guztietako bezeroei zuzenduta dago. Baina, oihalezko poltsak

aldiz, batez ere emakumeak erabiltzen dituzte, bai poltso moduan, bai erosketak egiteko, hortaz guk emakumei zuzendutako diseinuak eskainiko ditugu.